

# 8 SAN JUAN

Letra: Herrikoia  
Egokitzapenak: Itsaso Arrieta / Alberto De Abajo  
Musika: Xabier Zabala

San Juan, San Juan, San Andres  
gure soloan lapurrik ez,  
San Juan, San Juan, San Andres  
sorginik bez badagoz ere erre bitez.

San Juan bagilekoa!!!!  
Solo eta baserri inguruko  
zapok eta sugek, erre-erre!!!  
Juanen eta Juan Migelen  
artok eta garik, gorde-gorde!!!  
Biba San Juan!

San Juan, San Juan, San Andres  
eguzkiari agur ta oles  
San Juan, San Juan, San Andres  
bizipoza nahi dogu danontzat mesedez (bis)

San Juan bagilekoa!!!!  
belak eta muxarangak, erre-erre!!!  
maitasuna eta besarkadak, gorde-gorde  
Biba San Juan!

San Juan, San Juan, San Andres  
gure soloan lapurrik ez,  
San Juan, San Juan, San Andres  
sorginik bez badagoz ere erre bitez. (bis)

San Juan bagilekoa!!!!  
Solo eta baserri inguruko  
zapok eta sugek, erre-erre!!!  
Juanen eta Juan Migelen  
artok eta garik, gorde-gorde!!!  
Biba San Juan!



**HARAN HANDIAREN DOINUAK  
ERANDIOKO KANTUTEGIA**